

IKASKIDE BERDINEN ARTEKO TUTORETZA PLANA

GIZARTE ETA KOMUNIKAZIO ZIENTZIEN FAKULTATEA

2022-2023 Ikasturtea

Ikasle eta Enplegugarritasunaren Errektoreordetzako BAT programaren barruan Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateak egindako dokumentuan oinarritutakoa (2016/02/8).

IKASKIDE

GIZARTE ETA KOMUNIKAZIO ZENTZIEN FAKULTATEKO BERDINEN ARTEKO TUTORETZA PLANA (BAT)



Reconocimiento – NoComercial – SinObraDerivada (CC by-nc-nd 2.5 ES): Se permite la copia y distribución del material en cualquier medio o formato siempre que se cite la autoría y no se modifique el texto. Tampoco se permite su utilización con finalidades comerciales.

FACULTAD DE CIENCIAS SOCIALES Y DE LA COMUNICACIÓN
Bº Sarriena s/n
48940 - LEIOA

Aurkibidea

01 IKASKIDEREN HELBURUAK.....	3
02 ESKUHARTZE ARLOAK.....	4
03 EZARPEN EGUTEGIA.....	4
04 IKASLE TUTOREAK	6
04.1 IKASLE-TUTOREAREN HAUTAKETA.....	6
04.2 IKASLE-TUTOREAREN BETEBEHARRAK.....	6
04.3 IKASLE-TUTOREARI ESKAINTZA.....	6
05 TALDE TUTORETZEN KRONOGRAMA.....	7

IKASKIDE

BERDINEN ARTEKO TUTORETZA PLANA

2020-2021 | Programa

01 IKASKIDEREN HELBURUAK

IKASKIDE proiektua Euskal Herriko Unibertsitatearen Enpleguaren eta gizarte erantzukizunaren arloko errektoreordetzak bultzatutako Berdinen Arteko Planean (BAP, aurrerantzean) oinarrituta dago. Proiektuaren helburu nagusia Batxilergoko ikasleen unibertsitate bizitzara, Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatera eta matrikulatu diren gradura egokitzen laguntzea da. Matrikulatzeko orduan ikaslearen orientatzea ez da proiektuaren xedea, IKASKIDE dagoeneko eskaintzen diren graduetan matrikulatuta dauden lehengo mailako ikasleei zuzentzen da.

Egokitzapena gradu berdineko lehengo mailako ikasle berriak bigarren eta hirugarren mailako ikasleekin kontaktuan jartzean datza ikasle berriek dituzten informazio hutsuneak betetze asmoz, hain zuzen ere: unibertsitatearen, fakultatearen eta graduen antolakuntza, ikasleen eskubideak eta betebeharrak jasotzen dituzten oinarritzko araudiekin ohitzea, eta Kanpusak eta Fakultateak eskaintze dituen zerbitzu anitzekin kontaktua nola egin erakustea.

BAPekin bat etorritz, IKASKIDEren **helburu orokorrak** honako hauek dira:

1. Ikasle berriei unibertsitaterako jauzi horretan babesa ematea, ikastegian bertan eta unibertsitatean txertatzen lagunduta.
2. Ikasleek unibertsitateko bizimoduan parte har dezaten sustatzea.
3. Ikasketa-plana, bere aukerak eta modalitateak hobeto ezagutzea.
4. Ikasle berrien gogobetetzea hobetzea, ikaskuntza-prozesua egokitu, eta izan ditzakeen zailtasunei aurre hartuz.
5. Ikasle berriei informazio akademiko eta administratiboa ematea, UPV/EHUn egingo duten egonaldia hobetze aldera.
6. Ikasleek dituzten zailtasunak eta premiak hautematea, eta horientzako irtenbideak aztertzea
7. Tutore-lanak egingo dituzten ikasleengan zeharkako gaitasunak sustatzea.

02 ESKUHARTZE ARLOAK

BAPekin bat eginez hauek dira IKASKIDEn **esku hartzeko arloak**:

1. **Arlo Akademikoa**: Ikasle bakoitzari bere proiektu akademiko propioa eraikitzeko beharrezkoa duen informazioa ematea: Ikasketa plana, irakasgaien ezaugarriak, eleaniztasun eskaintza, praktikak, mugikortasuna etab.
2. **Kudeaketa arloa**: Unibertsitateko eta Fakultateko kudeaketa eta ordezkaritza organoak,
3. **Administrazio arloa**: administrazio-prozesu ezberdinen inguruan informazioa, kontaktatzeko pertsonak, inprimakiak, kudeaketa egutegia, informazioa non eskatu etab.
4. **Zerbitzuen arloa**: Unibertsitateak eta ikastegiak berak ikasleen unibertsitate bizitza errazteko eskaintzen dituzten zerbitzuak.

03 EZARPEN EGUTEGIA

Irakaskuntza antolakuntzako dekanordea eta Ikastegiko teknikariak izango dira IKASKIDE martxan jartzeko prozesuaren koordinatzaileak. Prozesua ondorengo **fasetan** inplementatuko da:

1. **Informazioa** emateko eta hedatzeko fasea.
2. Tutore lanak egingo dituzten **ikasleak aukeratzeko** fasea.
3. Ikasle tutoreen **prestakuntza** fasea.
4. Ikasleak **kontaktuan** jartzeko fasea.
5. **Tutoretza** prozesuaren garapena.
6. Programaren **ebaluazio** finala.

EGITASMOAREN HURRATSAK	BETBEHARRAK	EGUTEGIA
HEDATZEA	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ikasle kontseilu-kideekin eta talde delegatuekin bilera (OTSAILA). 2. Ikasleen artean (1., 2. eta 3. Mailetakoa) IKASKIDERi buruzko saioretara gonbidapena zabaldu eta ikasleak parte hartzera animatu (e-maila, kartelak, WEBa eta Fakultateko pantailatan). 3. Informazio saioa (OTSAILA). 	OTSAILA-MARTXOA
TUTOREAK AUKERATZEA	<ol style="list-style-type: none"> 1. Lehen, bigarren mailako eta hirugarren mailako ikasleei e-maila bidaltzea, kartelak geletan IKASKIDEn izen ematera animatuz. 2. Gradua, hizkuntza eta generoaren oreka kontuan izanik ikasleen hautaketa. Hirugarren mailako ikasleek bigarren eta lehen mailakoekiko lehentasuna izango dute eta batezbesteko notaren arabera. 3. Ikasle tutoreei izen ematea berretsi eta parte-hartze akordioa sinatu. 4. Iraileko prestakuntzaren informazioa eman. 	APIRILA-MAIATZA
TUTOREAK PRESTATZEA	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ikasle tutoreei emaila prestakuntza saioen datak gogoratzeko. 2. Derrigorrezko prestakuntza saioa hauek beteko dira: <ol style="list-style-type: none"> a. Bi Errektoreordetzan, Ikasleen Zuzendaritzak antolatuta. b. Bat Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean. 4. Ikasle tutoreei eskuliburu laburtua eta kontakturako gida txikia banatu. 	IRAILAREN lehen astean
IKASLEAK KONTAKTUAN JARTZEA	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ikasle berriei IKASKIDE proiektuaren berri emango zaie eta bertan parte hartzera animatu (matrikulan). 2. Lehengo mailakoei proiektua aurkeztuko zaie. 3. Irailaren lehenengo astean ikasle tutoreek mezua jasoko dute non ikasle berrien zerrenda eta lotura bidaltzen den tutoretza prozesua kudeatzeko. Prestakuntza saioretan parte-hartzeko beharra gogoratu egiten zaie. 4. Ikastegiak tutoretzak aurrera eramateko beharrezkoak dituzten materialak eta espazioak eskainiko dizkie ikasle tutoreei. 	IRAILAn, ikasturte hasierako bigarren astetik aurrera

(*) Behin-behineko datak egutegi akademikoa onartu bitartean.

04 IKASLE TUTOREAK

IKASKIDE proiektuaren gakoa Ikasle tutoreak dira, hauen esperientzia ikasle berrien zerbitzura jartzen baita bertan.

04.1 IKASLE-TUTOREAREN HAUTAKETA

IKASKIDE proiektuan parte-hartzeko aukera Gizarte eta Komunikazio Zientzietako graduetakoa bigarren eta hirugarren mailako ikasle guztiei eskainiko zaie. Guztira 50 plaza eskainiko dira honela banatuta:

- 20 plaza Kazetaritza graduan
- 12 plaza Publizitate eta Harreman Publikoa graduan
- 6 plaza Politika Zientzia eta Kudeaketa Publikoa graduan.
- 6 plaza Ikus-entzunezko Komunikazioan
- 6 plaza Soziologian

Izena ematean hirugarren mailan dauden ikasleak bigarren mailan eta lehen mailan dauden ikasleekiko lehentasuna izango dute. Hizkuntza eta generoaren arabera oreka mantenduko da. Hautaketa GAUREk eskainitako batezbesteko notaren arabera egingo da.

04.2 IKASLE-TUTOREAREN BETEBEHARRAK

Ikasle tutoreak honako konpromisoa hartzen dute:

1. Prestakuntza saioetara bertaratzea.
2. Gutxienez derrigorrezkoak diren 3 talde tutoretza saioak egitea.
3. Posta elektronikoko korporatiboan edo bestelako bideetatik jasotzen dituzten ikasle berrien galderei eta kezkei erantzutea.
4. Talde tutoretzetan parte hartu duten ikasleen erregistro txostenak betetzea.
5. Azken saioan ebaluazio inkesta pasatzea.
6. Unibertsitatera sartze prozesuan ikasleentzat antolatzen diren informazio eta orientazio jardueretan laguntzea.

04.3 IKASLE-TUTOREARI ESKAINTZA

Proiektuan parte hartu eta konpromisoak betetzen dituzten ikasleek honako egiaztagiria jasoko dituzte:

1. Programan parte hartu denaren ziurtagiria
2. 2 edo 3 kredituen onarpena
3. Mugikortasun programan eta praktiketan onartuak izateko puntuak.

Abantaila hauek jasotzeko ezinbestekoa izango da talde tutoretza saioen erregistroa aurkeztea.

05 TALDE TUTORETZEN KRONOGRAMA

Tutoretza saioak 4-6 astetik atera egingo dira, lehengoa, kontakturako, irailean izanik. Talde tutoretzen egunak eta orduak ikasle tutoreak erabakiko dut, ikasle berrien betebeharrak akademikoak kontutan hartuz. IKASKIDE proiektuaren koordinatzaileak beharreko espazioak eta materialak ikasle tutoreen esku jarriko dituzte. Talde tutoretza 4 saioen edukiak hurrengo taulan zehazten dira.

HILABETEA	Tutoretza saioak
IRAILA	<ol style="list-style-type: none"> 1. Kontaktua eguneratzea. 2. IKASKIDERen aurkezpena. 3. Posta elektronikoa/UPN/ e-gela. 4. Txanda aldaketak 5. Fakultateko web orrialdea 6. Ikastegiko instalazioak eta azpiegiturak
URRIA-AZAROA	<ol style="list-style-type: none"> 1. Irakasleen tutoretzak 2. Ikasketa-plana: <ol style="list-style-type: none"> a. Hautazko eta derrigorrezko irakasgaiak b. Eleaniztasun Plana c. Irakaskuntza Modalitateak 3. Talde ordezkaria aukeratzea 4. Ikastegiko ordezkari organoak 5. Ikasleen eskubideak eta betebeharrak. Arautegia 6. Kanpuseko zerbitzuak: liburutegia, polikiroldegia, garraioa.
AZAROA-ABENDUA	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ikasleen ebaluazioa: <ol style="list-style-type: none"> a. Kezka zehatzak b. Kezka orokorrak c. Araudia. 2. Matrikula zabaltzea. 3. Kanpuseko beste zerbitzuak: -.Osasun zerbitzua eta psikologia zerbitzua; -.Ikasle Elkarteak; -.Junior enpresak
URTARRILLA	Ez dago talde saiorik . Azterketa garaia
OTSAILA-MARTXOA	<ol style="list-style-type: none"> 1. Kexa prozesuak 2. Beste araudiak: deialdiak, iraunkortasuna, kredituak etab. 3. Mugikortasuna 4. Praktiak 5. Bigarren mailako irakasgaiak 6. Ikaskideren ebaluazioa